

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Judu herriaren mitoa noiz eta nola asmatu zen

Posible ote da duela 2.000 urte Israel-Palestina bizi izan ziren juduen ondorengoak gaurko palestinarrek izatea, eta aldiz, historiak zigortutako populu izatea aldarrikatuz, Israelera emigratu dutenak etnia ugariatako jende judutartuak izatea? Shlomo Sand historiagilea ez da hori defendatzen bakarra.

JUDU HERRIA ASMAKIZUN HUTSA DA. Hori defendatuz Shlomo Sand historiagile juduak plazaratu duen liburua eskandalua piztu du, Israelen seguru, baina mundu osoan ere bai. Hebreeraz *Matai ve'ech humtza ba'am bayebudi?* darama izenburu, eta frantsesez irail honen 3an plazaratu denak *Comment le peuple juif fut inventé*.

Internetek irakurgai dauzka Tel Aviv-eko unibertsitateko historia irakasle honi egindako elkarrizketa luzeak, bata Israelgo *Haaretz* egunkari famatuarena eta bestea Madrilgo *Públicorena*. Abuztuko zenbakian frantseseko *Le Monde Diplomatique* orri betean laburbildu ditu autoreak bere tesiak.

Israel eta Palestinako aktualitatea egunero begien aurrean daukagunez, munduan edozeinek du Israelen sorrerari buruz historia ofizialak diotenaren berri. “Israeldar orok daki, zalantza izpirik gabe, juduen populua badela Sinai mendian Jainkoak Torah (idazki santua) eman zionetik, eta bera dela herri haren ondorengo zuzen eta bakarra”, idatzi du Sandek.

Juduen mitologia kristauen eta musulmanen ondare zaharra ere badeenez, gure artean ezaguna da juduen herria Egiptotik atera eta “agindutako lurraldera” eraman zuela Jainkoak, han David eta Salomonek erresuma loriatuak eraiki zituztela, eta geroztik bi atzerrialdi nozitu zituztela hebreoek, bata Kristo aurreko VI. mendean eta

bestea Erromatarren garaian, 70. urtean. Ondorioz batetik bestera ibili omen zen herri hautatua, Yemendik Marokora eta Espainiatik Errusiara, Alemania eta Polonian barna.

XIX. hasi zen juduen eliteetan berriro sorterrira itzultzeko mugimendua, eta naziek burutu holokaustoaren ondoren sortu zuten Israelgo estatua. Palestinarrak? “Betidanik” juduei zegokien lurralde zaharrean aurkitu zituzten jendeak harantz kasualitatez iritsitako arabiarrek ei ziren, ez historiariak eta ez sustrairik gabekoak. Juduek lur haiek bortxaz berengantzea zuzen eta bidezkoa zen, beraz.

Baina mendebaldeko herritar gehienok irentsi dugun kontakizun borobil hori XIX. mende bukaeratik gaurdaino eraikitako asmakizuna dela frogatu uste du Shlomo Sandek liburuan. Gehiago: azken urteotan egindako ikerketa askok gezurtatu dituzte aipatu ideiak, oihartzun gutxiago erdietsi duten arren. Ezagutza akademikoa bideratzen den guneetan, historia bilerro paralelotan goldatzen baita, batetik “historia orokorra” eta bestetik “juduen historia”, sionismo ortodoxoak kate motzean kontrolatua.

Biblia teologiazko obratzat ez baina historiako liburutzat irakurtzeko joera nahiko berria omen da. XIX mende hasierako lehen historiagile juduek ondo bereizten zituzten, antza, teologia eta historia, baina beranduagoko

batzuek Bibliako pasarteak hitzez hitz historikotzat jotzen hasi ziren. Eta “Bibliako egiak” hezkuntza nazionalerako bazka bihurtu ziren.

Kontua da 1980ko hamarkadan pitzadurak azaldu zirela eraikuntza teoriko sionistan. Hala, arkeologiak erakutsi zuen K.a.ko XIII.eko Exodo famatua ezin izan zela gertatu. Edo Moisesek ezin eraman izan zituela hebreoak “agindutako lurraldera”... hau ere Egiptoren mende zegoen eta!

Lurra, odola, fedea, eskubideak

Urteotan historialariek analisi historikoari aurre egin ezin dioten egia bibliko andana biluztu dute. Juduen atzerrialdia Babilonian, K.a.ko VII.ean, hau ere ez zen hala gertatu: soilik elite politiko eta intelektuala deserriratu omen zen Babiloniara, eta –horra paradoxa– persiatarren sinesmenez kutsatuta sortuko da juduen mono-teismoa. Nork esan behar zuen: Yaveh ere inportaziokoa.

Berdin Kristo hil ondorengo deportazioa, 70.ekoa: ez zen halakorik jazo. Esklabu eraman zituztenez landa, Judeako gainerako herritarrek bertan jarraitu zuten, baita bigarren tenplua suntsitu ondoren ere. IV.ean kristau bihurtu ziren haietako asko, eta VII.ean arabiarrek etorritakoan islamera aldatu.

“Hori guztia ondo zekiten –dio Sandek– lehen pentsalari sionistek:

Cromacon delako batek Interneten plazaratu irudi hau 1988koa da, “Harrien Gudua” deitu zen lehen Intifada garaikoa. Jerusalem zaharrean Israelgo soldadu gaztea goardian dago umez betetako kale zuloan. Shlomo Sand historialariak *Judu herria nola asmatu zen* liburuan frogatutaz dauka munduko gaurko judu gehienak ez direla Israeldik aspaldi ihesi joandako hebreoen ondorengoak, mendez mende Yavehren federa bihurtutako etnia ugariatako jendeak baino. Sefardiak lireratek nagusiki Magreben judutartutako berbereak eta ashkenaziak antzinako khazar erresumatik datozke. Irudian, “agindutako lurra” aldarrikatzen duen soldadua litzateke barbaroen askazikoa eta beren etxeetatik kanporatuak izateko arriskuan dauden haur palestinarrek, berri, antzinako hebreoen oinordekoak.



Israelgo presidente izango zen Yitzhak Ben Zvi-k bezala estatua fundatu zuen David Ben Gurion-ek, hala idatzi zuten 1929an, palestinarren matxinada handiaren urtean. Biek aipatu zuten behin eta berriz Palestinako nekazariak direla antzinako Judeako biztanleen ondorengoak”.

Orduan, nola ulertu Espainiatik hasita Errusiaraino barreiatu ziren juduen jatorriak? Juduena erlijio proselitista zela kontuan izanda. Honetan datza Shlomo Sandek egun argitarata atera duen egiaren funtsa. Nazaretheko Jesus jaio baino bi mende lehenagotik juduak ari ziren beren erlijiora bihurtarazten inguruko beste herriak.

Fedea hedatzen gero eta urrunago iritsiko ziren. Esaterako, gaur Kurdistan den lurraldean Adiabene izeneko

erresuma judua izan zen I. go mendean. Geroago, kristautasunak nagusigoa irabazi zuenean, bazter herrietara jo zuten juduek proselito bila. V. mendean Yemenen Himyar izeneko erresuma izan zen, eta haren ondorengoek judu iraun dute gaurdaino.

VII. mendean Kabilian, Afrikako iparraldean, famatua izan zen Dihya el-Kahina erregina judua, arrapaladan zetozen arabiarrei aurre egiten saiatu zena. Haren leinuko amazigh edo berberea izan zen geroxeago bisigodoi Hispania kenduko zien Tariq ibn Ziyad. Alde horretatik, Marokotik sartuta Iberia konkistatu zutenak musulmanak eta juduak ziren.

VIII. mendean gertatu zen konbertsiorik handiena: Itsaso Beltzetik Kaspiarra Kaukasoan barna hedatzen zen

Khasar edo Jazaroen erresumako jendeak judu bihurtu ziren. Urruneko lurralde haietan dute jatorria Europako ekialdeko geroko juduek, zeren eta XIII. mendean mongoliarren presioak barreiatu baitzituen Alemaniatic hasi eta Errusiarainoko lurretan barrena. Oinarri haien gainean eraikiiko zen yiddish kultura oparoa.

Benetako historia horrela gertatu delakoan, Shlomo Sand ausartu da sakrilegioa egitera: 1967an gerra labur baten ondoren Israelgo soldaduek Jerusalem konkistatu zutenean, soldadu hebreoetako asko aspaldiko khasarren edo berbere barbaroen ondorengoak zirela eta, aldiz, oinpean erabili zituzten bertako herritarrak antzinako judu musulmanduak.

Dena dela, azken hamarkadotan Israelgo *intelligentsia* ofizialak ahalegin handiak egiten ditu arkeologian bezala biologiaren bidez herri juduaren batasun genetiko nola edo hala frogatzeko. Sortu eta 60 urtera Israelek juduentzako estatu izaten segitzen du, ez du onartzen herritar guztien errepublika izaterik, biztanleen laurdena, jatorriz bertakoa izanik ere, marjineziora bortxatuz. Hori Eretz barruan, Palestinako triskantza aipatu barik.

Shlomo Sandek *Ethnocracie sans frontières* izendatu du sionismoak nazio eternoaren mitoan oinarritutako sistema, eta juduen historia berria idaztea aldarrikatu du. Mitoak eraitsitakoan, alde batetik gera dadin munduko etnia askok darabilten erlijioa eta bestetik Israelgo herritarrak. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



K A L I T A T E A

Produkturik
onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik
zabalena
bataurreko graduatu,
ukipen-lente,
audlofono eta
eguzkitako
bataurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Herran kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624